

**ELAk EAeko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean bere partaidetza
etetea erabaki du**

Kutsu neoliberal nabarmena dute hego Euskal Herriko erakundeen politikek (Eusko Jaurlaritza eta hiru foru-diputazioenak eta Nafarroako Gobernuarenak). Europako Batasuneko gastu sozial txikienetakoa dugu, eta, gainera, iruzur fiskalari ez ikusiarena egiten dion politika egiten da, zerga-eskumenen kudeaketari dagokionez. Bestalde, errenta handiei eta kapitalari laguntzen diete PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan eginiko aldaketek. Hori dela eta, gizartearen premiak estaltzeko behar-beharrezkoak diren milaka milioi euro geratzen dira zerga bidez jaso gabe.

Horrez gain, erakundeek, beren eskumeneko alorretan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, ingurumena, zerbitzu sozialak, politika industrial...), ez diete inongo eginkizun errealik ematen sindikatuiei, erakundeen politikak txalotzeko ez bada. Erakundeen diskurtsoak eta praxiak irizpide hau du oinarri: "Guri bakarrik dagokigu erabakitzea zer egin behar den". Gizarteko gainerako eragileei, berriz, isilik egotea egokitzen zaie, nonbait.

Bereziki aipatzekoa da foru-aldundien jokabidea: aholku-organo bat bera ere ez izan arren erakunde horietan, politika fiskala, azpiegiturak, laguntza sozialak... nola kudeatu erabakitzen dute.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, hautsi egin ditu joko-arauak negoziazio kolektiboan, eta sistematikoki ematen die bizkarra sektore publikoko gehiengo sindikalei.

Patronala da eredu horren onuradun nagusia, haren zerbitzura jarriak baitira euskal erakunde publikoak, eta ez diote sekula aurka egiten, ezta laneko legedia betearazi eta gutxieneko ikuskaritza-lanak egiteko ere. Ez da harritzekoa, beraz, patronalak elkarriketarik nahi ez izatea gai garrantzitsuei dagokienez (behin-behinekotasuna, gizarte-eredua...). Eroso asko dago, izan ere, aplikatzen ari diren politikekin.

Testuinguru horretan, organismo antzua da EAeko Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (KES). Aholkularitza-organo baten itxura eman nahi zaio, baina patronalak ez du aipatzerik ere nahi gai garrantzizkoenak; erakundeei, berriz, bost axola KESren iritzia.

Izugarriak dira KESren gabeziak:

- Foru-aldundien politikak ez dira sartzen haren eskumenetan, nahiz eta EAeko gizarte-ereduaren zati handi bat haiek kudeatzen dituzten.
- Eusko Jaurlaritzak, bere politikak eratzeke, ez ditu aintzat hartzen KESren iritziak (adibidez, BGAEei buruzko dekretua, etxebizitza-politika,

zerbitzu sozialak...). Alde horretatik, inongo eraginkortasunik gabeko organismoa da, eta itxura hutserako erabiltzen du Jaurlaritzak, KESi aholkua eskatu diola esateko edo.

- Eusko Jaurlaritzak proposatu du KESren funtzionamendua aldatzeko batzorde txostengile bat sortzea Eusko Legebiltzarrean. Jaurlaritzako inortxo ere ez da ELArekin harremanetan jarri gai horiei buruz mintzatzeko. Bistakoa da erabakiak hartzeko araudia aldatu nahi duela Jaurlaritzak.
- Araudiaren interpretazio os murritzaila egiten du patronalak. Hori dela eta, aukera gutxi dago boto partikularrak emateko, eta irizpenetan jorratu gabeko edo zuzenketak atzera botatako gaiei buruzko iritzia emateko.
- Eztabaidak antolatzen ditu KESei zenbait gai jorratzeko, baina patronalak AHTri buruzko mahai-inguru xume bat egitea ere galarazi egin du, orain arte proposatutako gai guzti-guztiak eztabaidatu diren arren. EAEko azpiegitura-obra handienari buruz ere ezin bada eztabaidarik egin, nahiz eta ondorio larriak eragingo dituen ekonomian, gizartean eta ingurumenean, zer eztabaida daiteke KESen? Azpiegitura honi buruz zilegizko eztabaida bera saihestu egiten da. Horra noraino iristeko gauza ziren batzuk.

Hori guztia dela eta, KES erakundean bere partaidetza etetea erabaki du ELAk, erabat eta muga jakinik gabe, gaurtik –2008ko ekainak 5– aurrera, harik eta bermerik egon arte erakunde horretan parte hartzeak zerbitzuetarako balioko duela, hau da, eduki jakin batzuk izango dituela eta kontuan hartuko dela haren iritzia politika publikoak finkatzeko, eta haren funtzionamendua oztopatzen duten jokabideak alde batera utzi arte.

Bilbon, 2008ko ekainaren 5an